


Euskal AEko eraikuntza kostuak egonkor 2014ko otsailean aurreko hilaren aldean

Aurreko urtearen aldean, 2013ko otsailaren aldean, eraikuntza kostuak %1,1 gutxitu ziren

2014ko otsailean, Euskal AEko Eraikuntza Kostuen Indizeak ez zuen aldaketarik izan (%0,0) aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %1,1 jaitsi zen, EUSTATEN datuen arabera.



Lan-eskuaren kostua lehengoan, %0,0, eta lehengaien kostuak %0,1 gutxitu dira, aurreko hilaren aldean.

Otsailean Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek antzeko bilakaera izan zuten lehengaien kostuari dagokionez. Etxegintzan %0,1eko jaitsiera aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilarenean %0,0.

Bi azpisektore hauen urte arteko bilakaerak: Etxegintzako lehengaien kostuak %1,7 gutxitu dira eta Obra Zibilekoenak %2,8.

Urteko prezioetan (2014ko otsaila 2013koaren aldean), kontsumitu diren lehengaietan prezio-igoera handienak izandako sektoreak: Zurgintza (%1,6), Kautxu eta plastikoa (%0,4), Industria kimikoa (%0,4). Prezio-jaitsierarik handienak: Petrolio finitza (%-8,0), Metalurgia (%-4,6), Ez-metalezko mineralak (%-2,8).

1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK. 2014KO OTSAILA (p)

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m / m-1	m / m-12	m / abendua
GUZTIRA	102,5	0,0	-1,1	-0,3
ERAIKINAK	102,3	-0,1	-0,9	-0,3
OBRA ZIBILA	103,8	0,0	-1,8	-0,1
LEHENGAI A	101,7	-0,1	-1,9	-0,8
ERAIKINAK	101,4	-0,1	-1,7	-0,9
OBRA ZIBILA	103,3	0,0	-2,8	-0,6
LAN-ESKUA	105,4	0,0	1,8	1,8

Oinarria 2010=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua